

Lekeitiorako bidaiak eta bisitak, jaiak eta kultur ekintzak biltzen ditugu sail honetan, bi azpisailotan:

-Lekeitiora datozen euskal kulturaren hainbat gizon ospetsuen nondik norakoa azaltzen duten berriak: Azkue, Zabala, Arana eta abar.



*Akademiaren bilera Bilboko egoitzan (1928-5-28).*

*Zutik: N. Ormaetxea, J. Elissalde, S. Añabe, Julio Urkixo, E. Olabide.*

*Eserita: J.B. Eguzkitza, B. Etxegarai, R.M. Azkue, G. Lacombe.*

#### *Dabiltzanak.*

Emen euki dogu Zabala-Arana'tar Joseba Miren-Biotzeko Aita, euskalari jakintsua. Bilbao'n gertuten daukazan idaztiren bazuk ikustera etorria; bide batez Ea-aldean eleiz-itzaldi bi egiñik. Aste Gurenez Lekeitio'n bertan izlari izango yakula ta pozozik gagoz berari entzuteko.

(Ekin 1933, 60. zenb)

#### *Dabiltzanak*

Euskaltzaindiko Buru ta errikoseme argia dogun *Azkue'tar* Berbiz jauna gure artean dogu, udaroa igarotzeko ustean. Atsegin izan beikio aldi labur au, euskalari jakitun ta langille gartsua oneri.

Baita, egun batzuetarako, bertan dogu Nabarriz'ko Txamburu edo Parroko jauna dan Arroita'tar Nikola, errikoseme zintzo ta ezaguna. Ondo etorria, adizkide.

(Ekin 1933, 77. zenb.)

Lekeitioko jaietako buruzko urteroko iruzkinak. Hemen ere azpimarratu beharra daukagu «Ekin»-etik kanpo, orokorrean eta gipuzkeraz eguzkitzak egindako artikulua: «Kaxarrenkaren goraberak eta Auriako Jaya» gero RIEV aldizkarian agertu zena eta oraintsua-go «Lekeitio» aldizkarian duguna, Otoiopeko herriaren folkloeraren zatirik ahanztezina bihurtu zaiguna. Hona hemen, esaterako «Donianak» jaiari buruzko testua:

#### *Donianak.*

Andiro ospatu eben uri aurretako abertzaleak batzokiaren zabal-kunde -urteurrena. Goizean-goizetik Jauna-artzera eldu ziran lenengo; gero Jaupa Nagosia abestu eben jasean; amaituta, aurrisku ederra; bazkal-ostean, deduzko akeit edo kafe-artzea, ta azkenez, arratsaldean pelotaka bikain bi, txapelketan ibilli diran Gemika ta Murelaga'koen aurka, emengo batzokiko Txopitea-Kortazar eta Bengoetxea-Etxebarria biñakoak, eurok irabazten urten ebela. Oyal eta argi politez apaindurik egoan batzokia be aurregumetik ondo ikuskatua izan zan; baratzean biztu zan Doniane-sua ta umetxuak eta gazteak ederto jolastu ziran atan be. Ezpadantzari ta gorularitxuak, txistulari txikiak lagundurik antzetsu, pelota-tokian oi daben lez ederto ekin eutsoen eresi-dantza bizkor, gozatsu ta bere-bizikoenean.

(Ekin, 1932, 22. zenb.)

### **C) Egungo Lekeitio eta Eguzkitza**

Azaldutako guztiak nabaro erakusten duenez. Eguzkitzaren lana ez dago soilki lotua erlijio liburu eta hizkuntz artikuluekin baizik eta herrikoiagoak diren beste arlo batzuekin ere. Honela jokatzen duenean gainera, Eguzkitza, beste asko bezalaxe, bere sasoiko semea dugu.

Eta aldian aldiko semetza horrek, bere ideiak zirela medio, Lekeitiotik erbesteratua eta Lemoara urrundua izatea ekarri zion

gerra garaian, Lekeitio okupatua izan zenetik bertan, epe laburrean hiltzeko (1939).

Hortik aurrera, Eguzkitzak, batipat euskal literaturan denetik jaso badu ere (lekukoak Mitxelena, Villasante eta Aita Onaindia) gaur erabat ahaztuta dago. Gerraren etenaz eta ahanziuraren poderioz Eguzkitzak ez du ezagutu orain ugaltzen ari diren euskal azterlarien oihartzuna, lehen aipaturiko salbuespenak izan ezik. Dena den bere lanean non eta zer jorra badela uste dugu.

Eta merezi duelakoan gaude, aurreritzi askoren gainera. Eta hastekotan gainera, hainbeste urtetan bizi zen herritik has daiteke, arestian Eusebio Erkiagak Lekeitiok opa zion omenaldiaren aukerari lehen etsenplua eman zigula, Eguzkitzaren gomuta ederra eginez. Agian Lekeitio ere ezezaguna bihurtu zaigun gure tarteko idazle honen alde zerbaiteko garaia eta abagunea hedu delako, euskal literaturan ez eze, berak maite eta bizi zuen herrian ere bere gogoangarria izan dezan, berari ere bait da Lekeitio itxas aldeak euskal letrekin eta euskararekin lotzen duen katearen lokarri alboracina.

*Andres Urrutia*